

Idazleak itzultzaileari mintzo, lagunak lagunari mintzo: Miren Iriarteren oroimenez

UXUE ALBERDI, AMAIA APALAUZA, SAMARA VELTE

Sarrera: zuloa lurrez bete

AMAIA APALAUZA

«Heriotza kolpe latza da askotan, batez ere pertsona handiak gazte eramaten ditue-nean». Fernando Rey adiskide handiak Nuccio Ordineren heriotzaren harira idatzitako hitzak dira («Zure bizitza ez da alferrikakoa izan», *Berria*, 2023ko ekainaren 13a), baina lasai aski izan zitezkeen gazterik hildako beste norbaiti buruz idatziak ere. Maite dugun norbait gazterik hil zaigunoi hura etorriko zitzaigun burura, eta niri Miren Iriarte etorri zitzaidan. Gazterik hil baitzen Miren, 2022ko abuztuaren 8an, 44 urte zituela, testu hau idazten ari garen momentuan urte-bete igaro ez dela.

Geroztik, hutsuneak betetzen nabil. Edo hutsuneekin bizitzen ikasten. «Zeren hutsune? Zeren hutsune», dio Iñigo Satrustegiren poema batek («Nire-nirea dudan zuhura-gu-zuek-haiek bat», *Egile berriendako*

literatur lehiaketa. 2022. *Saritutako lanak*, Iruñeko Udala, 2022). Norbaitek galdetuko balit zer den dolua, horixe esango nioke, hutsune handi bat sortzen dela eta hura betetzen ikasi behar duzula. Hala bizi dut nik bederen. Hasieran, gorputz-atal bat erauzi balidate bezala sentitu nintzen, bortxaz, zakar, saminki. Hondeamakina baten palak gorputza erdiz erdi zeharkatu eta barrenbarrean neukan zerbait atera balit bezala. Mina, ezin ulertua, ezin onartua. Eta, gero, hutsunea. Eta hutsune horrekin bizitzen ikasi behar. Eta halaxe nabil orduz geroztik, zuloa lurrez betetzen, baina ez hondeamakinaz, baizik eta lur-eskukadaka, pixkanaka, pitinka, eztiki.

Prozesu horretan, ondoan izan ditut hainbat pertsona, hainbat lagun. Nire maitteak. «Nik nire kabuz ereindako hazia bes-telako gauza bat bihurtzea nahi nuen. Hortik sortu zen beharra arrangura hori zerbait kolektiboagoa bihurtzeko». Oier Zuñigaren

hitzak dira, bere ama hilaren omenez egin-dako «Eresia. Lurra arin bekizu, ama» antzezlanaz mintzo («Dolu erritu kolektibo bat», Aitor Biain kazetariaren erreportajea, *Berría*, 2022ko urtarrilaren 14a). Mirenekin oroitu nintzen antzezlanak ikusi nuen. Oroitzapenei heltzea aldarrikatzen du Oierrek. Oroitzapenei heldu, kolektiboki, elkarri eskua emanda. Eta horixe izaten ari da zuloa lurrez betetzeko prozesua niretzat. Oroitzeak mina dakar batzuetan, baina zenbat irribarre hala ere. Noiznahi datorkit Miren akordura. Berak sutsuki gomendatutako *Historia de España contada a las niñas* liburua ikusten dudana aldiro. Mirenen ahizpa Iruñak hain eskuzabalki oparitu zidan Mirenen liburu-sortari begiratzeko diodana aldiro. Miren hil zenetik nire ohe ondoko gau-mahaitik mugitu ez den *Ihesi doana eta gelditzen dena* laztantzen dudana aldiro. Balkanetako idazle berriren bat deskubritzen dudana aldiro, hain baitzen Miren ere zalea. Madalenako baratzeetan paseoan nabilela Olaia eta Maialen Fernandoren tomate-landare artean jostaketan oroitzen ditudana aldiro. Familia-eredu tradizionalaren mamuak bidean tupustarri bat ezartzen didana aldiro (ai patriarkatua, Miren). Miren azkenekoz bizirik ikusi nuen bidegurutzearen ondotik igarotzen naizena aldiro. Eta abar. Eta kolektiboan, lagunaren eskutik helduta noa aurrera, mina kanporatuz, partekatuz. Nola ahantzi Itziarren eta Fernandoren besarkadak lehen egunetan. Nola ahantzi hurrengo egunetako telefono-deiak, Garazi, Inma, Aran, Mila, Aitziber, Txuri, Eneko, Aroa, Txibi. Nola ahantzi Iruñaren, Lei-

reraren eta Neliren esker ona beilatokian eta kanposantuan. Nola ahantzi Garazi Ugalderek sakelakora bidali zidan poema.

Bide horretan, garbi neukan biok hain maitea dugun itzulpengintza ere bidelagun izango nuela nire dolu-prozesuan. Bion arteko beste lokarri bat, inoiz etengo ez dena. Oso maitea baitzuen Mirenek itzulpengintza. Euskaratik eta euskarara itzultzen zuen. Eta izenburu ezin ederragoko aleak utzi zizkigun: *Ihesi doana eta gelditzen dena* (Elena Ferrante), *Proleterka* (Fleur Jaeggy), *Entrañas* (Danele Sarriugarte), *Yo sí te creo* (Samara Velte), *Reverso* (Uxue Alberdi), *¿Qué sucede en K en las noches de luna llena?* (Danele Sarriugarte). Itzultzaileoi askotan eskatzen digute gure itzulpenez hitz egiteko, eta idazleei ere bai, beren sorkuntzez mintzatzeko. Bada, oraingoan, eta Mireni omen egin nahian, idazleei eskatu diegu mintza daitezela beren liburuen itzulpenez eta beren liburuak itzuli dituzten itzultzaileez. Ariketa eta bidaia kolektibo ederra izan da. Uxue Alberdik, Danele Sarriugartek eta Samara Veltek aurki esan zidaten baietz, idatziko zutela zerbait. Idazleak itzultzaileari mintzo. Lagunak lagunari mintzo. Hortaz, Uxueren eta Samararen testuak dakartzagu segidan; bidean geratu zaigu Danelerena, baina berdin-berdin izan dugu bidelagun. Eskerrik asko hiruroi, zuen lurrarengatik, ongariagatik, goldatze-lanarengatik.

Amaitzeko, Uxueri eta Samarari hitza eman aurretik, Garazi Ugalderekin poema eder hau ekarrita (*Mare. Ilargiari poemak*, 2022):

Heriotzaren aintzira. *Lacus Mortis*

Izango zen zu gabeko egunik lehen ere,
akaso beste bizi zikloren batean,
elkarrekin harri borobilak biltzen hasi aurretik,
baina halako indarrez argitu didazu bidea
memoria dudanetik...
Itsasargi bat zinen, orain badakit.
Izango nintzen zu gabe inoiz,
baina ze nekeza den norbera haztatzeko
ispilurik ez izatea.
Ispilu ere bazinen, hara,
eta enbor sendo baten egonarrria
beti hor, harrien neurriko metamorfosi geldoan.
Beraz, materia ez bada ez sortzen ez suntsitzen,
soilik aldatu egiten bada,
nora galdu zara?
Badakit, jakin behar nuke
esku laguna galduta ere
intuizio hutsez aurrera egiten,
eta ahal dela ez bide bazterrera trakets erori
edo, erorita ere, Lurraren grabitatea atzeman
eta zutitzeko gai izan.
Oraingo, baina, hemen geratuko naiz
aintzira honetan oinak beratzen
ea zer, ea nor, ea nola, betiereko ikasle.
Eta halako batean birsortuko naiz errautsetatik
fenix baten indarrez,
ilargi zuriaren azpian oinez jarraitzeko.

Itzulpenaz eta bizitzaz

UXUE ALBERDI

Orain bilak ditugu, zioen Karmele Jaioren poema-liburuak. Zimurrak, markak eta hilak ugaritzen doaz bizi garen artean. Batzuetan, autoan bakarrik goazela, kopilotuaren aukira begiratzten dugu, zergatik jakin gabe. Batzuetan, ametsetan, ukitu egiten gaituzte. Batzuetan, haien betaurrekoak, blusak eta belarritakoak janzten ditugu. Aldika, usain batek haiengana garamatza. Inoiz, haien ahotsa entzuten dugu. Lanbrotzen ari dira. Baita gu ere.

Hildako lagunuen telefono-zenbakiak ezabatzeko ohitura dut. Ez zait gustatzen haien izenak telefonoaren agendan aurkitzea: badakit ez daudela hor. Deituz gero, ez lidake nik nahi dudana ahotsak erantzungo. Hala ere, ulertzen dut nire bikotekidea bere urtebetetze egunean begiak ireki orduko whatsappean bila: sei urte atzera hil zen aitaren azken zorion mezua irakurtzen du, hark zoriondu dezan lehenbizi.

Zurea izan zen ezabatu nuen azken zenbakia, tanatoriotik bueltan, autora sartu nintzenean. Bero sapa egiten zuen.

Hasier Etxeberriaren «Noiz hiltzen dira benetan lagunak?» artikuluarekin oroitu nintzen. «Heriotza fisikoak ez du derrigorrez lagunaren presentzia agortzen», zioen, eta telefonoko agendarekin gertatzen zitzaiena kontatzen zuen: «Banoa Andoni izeneko lagun baten telefonoaren bila, eta Andolin agertzen zait, Andolin Eguskitza. Rafa izeneko lagun baten telefonoa nahi dudanean, Rafa Chirbes agertzen zait eta kuadrillako Mikelen telefonoaren bila hasien naizenetan, Mikel Laboa agertzen zait».

Bera ere laster igaro zen lagunen agendetan mamu izatera. Zu, Miren Guilloren eta Miren Irigoienen artean zeunden.

Zure emailak bai, gordetzen ditut. 2021eko apirilaren 14koa da *Itzulpenaz eta bizitzaz* deitu zenuen hau. Goizeko 9:45ean bidali zenidan, Errepublika egunez.

Gaia: *Itzulpenaz eta bizitzaz*

Egun on, Uxue:

Zer moduz?

Bueno, ni hementxe, itzulpenaren azken txanpan, baina ezinago motel.

Nire egoeraren berri emateko idazten dizut, zeren gauzak normal, Reversoren itzulpenak egina beharko luke dagoeneko... Baina ez.

Kontua da azken hilabete hauetan baju xamar ibili naizela. Uste dut Iruñak zeozer kontatu zizula. Neke handiarekin, psikologikoki apal, hainbat gauza nahastu dira tartean, eta arazo ginekologikoak izaten hasi nintzen. Hasieran, pentsatu nuen estresaren, pandemiaren, adinaren... kontua zela. Batek daki. Baina ez nintzen ongi sentitzen. Ginekologian hitzordua eskatu nuen baina ez zidaten ematen, itxaron-zerrenda luzeak ditugu hemen ginekologiarako.

Azkenean, egun batean, nazkatuta, larrialdietara joan nintzen, eta han hartu ninduten. Eta, tira, laburbilduz, proba batzuk egin zizkidaten: zitologia, ekografia... eta handik egun batzuetara deitu zidaten esateko zerbait ikusi zutela analisisetan. Gero biopsia eta erresonantzia magnetikoa egin zizkidaten. Ordurako nik garbi neukan zerbait bazela hor, nire umetokian. Atzo eman zizkidaten emaitzak eta, pentsatu bezala, tumore txiki bat dut umetokiaren lepoan.

Lasai nago, Uxue. Pixka bat izututa, baina lasai. Tokatu zaidan ginekologoa zoragarri portatu da nirekin, oso-oso ongi, eta horrek lasaitasun handia eman dit. Oraindik ez dakit nolako tratamendua izanen den, oso lokalizatua dago eta argi utzi didate hilabete batzuetako kontua izanen dela. Udan hondartzara joateko moduan egonen ote naizen galdetu nion eta erantzun zidan udan hondartzara joan ezin badut koronabirusagatik Nafarroako mugak itxiko dituztelako izanen dela; ez kontu honengatik.

Tira, esandakoa. Kontatu egin nahi nizun, jakin zenezan zergatik joan den horren motel itzulpen hau. Indarrrik gabe egon naiz. Azkeneo kapituluarekin ari naiz eta espero dut aste honetan amaitzea. Gero zuzenketa sakon bat egin nahiko nuke, baina ikusiko dut nola nagoen. Iruñak esan zidan, bestela, zuek hiruok, Iruñak eta Javik eta zuk, egingo duzuela, eta ederki geratuko dela, beraz, ikusiko dugu, egunez egun.

Eta, oraingoz, hori, Uxue. Hitz egingen dugu, ea egunen batean mugak irekitzen dituzten eta elkartzen garen.

Besarkada handi bat.

Miren

Handik gutxira, mugak ireki zituzten, baina ez ginen elkartu. Hondartzak bete ziren eta gora eta behera egin zuen mareak. Handik gutxira, argia ikusi zuen Reversok, baina ezin izan zinen aurkezpenetara etorri. Handik gutxira, *Hili* liburua bidali nizun, biziko zinelakoan. Handik gutxira, hil egin zinen. Handik gutxira, are gehiago luzatu ziren ginekologiako itxaron-zerrendak. Eta handik gutxira, gaur.

Neuk itzuli nituen *Kontrako ezarritiken* azkeneko kapitulua eta epilogoia, eta Iruña, Javi eta hiruron artean zuzendu genuen liburua osorik. Prozesu lantsua eta polita izan zen, tentuz egina. Kapituluren bat orrazten ahalegindu zinen ospitalean. Argazkia bidali zenidan: orri zuriak maindire zurien gainean eta eskuan errotuladore gorria. Baina nekatuegi zeunden, eta atsedean hartzeko esan genizun.

Italo Calvinoren pasartearen argazki bat bidali nizun, sarri kezkatu izan zinela galdere gehiegi egiten ote zenizkidan beldurrez. Zure pozaz eta esker onaz oroitzen naiz. Eskua luzatu dut apalategira. Hementxe dago, *Mundo escrito y mundo no escrito*ren 83. orrialdean. Itzuli egingo dut, zuretzat: «Konfiantza bete da idazlearen eta itzultzailearen arteko elkarlanean. (...) Zalantzarik ez duen itzultzailea ezin da itzultzaile ona izan. Egiten didan galdera motaren arabera ausartzen naiz itzultzaile baten kalitateari buruzko nire iritzia ematen».

Zure galderak gustatzen zitzaizkidalda esan nizun: «Oihana Iguaranek zer esan nahi du zehazki *neskamotza* dela dioenean?», «Maialen Akizuk zer esan nahi du *artzaina* dela esanda?», «Zer moduz zaude gaur, Uxue?». *Chicarrona* eta *campechana* itzuli genituela uste dut. Ondo nengoela esan nizun.

Orain, gauzak zer diren, zure lagunaren lagun egin naiz, Miren. Fernando Rey eta biok adiskide egin gara. Bere familiako

zenbait pasadizo eder kontatu dizkit liburu baterako, baita testua zuzendu ere, ongi ezagutzen dizkiozun taxuz, errespetuz eta samurtasunez. Esti Lizasorekin egon berri naiz Katalunian, *Revers* aurkezten. Ez nekien elkarrekin aritu zinetenik *Erraiaken* itzulpen-lantegian. Oso oroitzapen ona gordetzen du zutaz. Amaia Apalauzak eskatu digu artikulu hau. Bera oraindik ez da zure mezuak irakurtzen ausartzen, gogorregia zaio. Uztailean Iruña, Javi eta Olaiarekin elkartuko naiz Cuencan: *glosadore* kataluniarren, Galiziako *regueifeiren* eta bertsozarien arteko topaketa egingo dugu, eta Danele etorriko da interprete.

Joan-etorriko bidaia da itzulpenarena. Ekarki eta eraman, eraman eta ekarki. Deskodetu eta kodetu. Ahalik eta sakonena ulertu. Murgildu eta azalera irten. Hitz berriekin esan. Existitzen ez den musika bat asmatu eta kantu bera jo. Ura eraman eskutik eskura, ahalik eta tanta gutxienak galduz bidean. Jende baten ahotsa beste jende baten belarrietara hurbildu. Puskak bildu. Trena hartu. Etxera itzuli.

Nola itzultzen da heriotza, Miren? Itzuli ezin den toki bakarrera joan zara.

Inoiz hilen eta bizien arteko mugak zabalitzen badituzte, ametsezko hondartza batean elkartuko gara itzulpenaz eta bizitzaz solastatzeko. Bitartean, lorratzetan bilatuko ditugu esanahi berriak.

Ehuntze baten istorioa

SAMARA VELTE

2018an, *Berrian* eszedentzia hartzeaz nengoela unibertsitateko ikerketari heltzeko, azken enkargu bat proposatu zidaten erre-dakzioan: 2016ko sanferminetako talde-bortxaketari buruzko kazetaritza-liburu bat idaztea. Hortik sortu zen *Nik sinesten dizut: bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua, Berriak*, Jakinek eta Elkarrek editatzen duten «Aleka» serieko zortzigarren atala. Garai bertsuan, asmo bertsuarekin zebilen Txalaparta argitaletxea, eta aurki adostu zuten argitaratzaileen artean liburu bat bi hizkuntzatan argitaratuko zela: euskaraz 2019ko maiatzean, eta gaztelaniaz handik aste gutxitara. Hortaz, bi liburuen idazketa aldi berean gertatu beharko zen, eta jada aski berandu nindoan: 2018ko udazkenean egin nituen elkarrizketak, eta Eguberrien bueltan hasi nintzen liburuen erredakzioarekin. *Berriako* arduradunak itzulpena neronek egin nahi ote nuen galdetu zidanean, katu batek bainuontzitik bezala begiratu nion: «Nola, itzulpena? Noiz?».

Epe laburrean itzultzaile bat bilatzeko lanari ekin zioten editoreek; liburuaren epe laburragoan itzuliko zukeen norbait bilatzeari, alegia. Urtarrileko azken egunetan jaso nuen Garazi Arrula Txalapartako editorearen mezu lasaigarria: «Hara, lortu dugu nork gaztelaniaratu: Miren Iriarte. Itzultzaile iruindarra da. Orain beste kontu bat du esku artean, baina otsailaren erdialderako bukatuko omen du. Aurrerago, liburuen lehen zirriborroa bukatuta dagoenean-edo, jarriko zaituztet harremanetan, nahi baduzu. Bestela, ez dugu zertan; beharbada

itzulpen-prozesuan lagungarri zaio zure kontaktua izatea, zerbait galdetu nahiko balizu ere, edo beharbada zuk itzulpena irakurri nahiko duzu argitaratu aurretik».

Baietz erantzun nion: posible bazen, nahi niola itzulpenari «jarraipentxo» egin, Mirenen lanean muturra gehiegi sartu gabe. Edonola ere, euskal kazetaritzan ohikoa denez (eta toki batzuetan bereziki), elkarrizketa gehienak gaztelaniaz egin nituen jatorrian; beraz, ez zukeen zentzurik izango liburu baterako euskaratutakoa beste liburrako ostera ere gaztelaniara itzultzeak.

Martxoaren 1ean jarri gintuen Garazik formalki harremanetan Miren eta biok. Helburua zen gaztelaniazko liburuaren sanferminetarako kalean egotea, gaiarekiko koherentzian, eta, horretarako, testuak prest egon behar zuten ekainaren 1erako. Mirenek, hortaz, hiru hilabete zeuzkan 210.000 karaktereko erreportaje luze bat itzultzeko. Kazetariok ohituta gaude erlojuaren kontra idaztera. Itzultzaileak, orduan ikasi nuen, baita ere.

Elkarrizketetako transkripzioak ez ezik, liburrarako bildutako material eta dokumentu ugari ere gaztelaniaz zeuden; besteak beste, hemerrotekako artikulak eta txosten akademikoak, baita bortxaketaren epaiketako akta eta sententziak ere. Euskarazko kazetaritza egiten dugunok, sarritan, ez gara ohartzen zenbateraino egiten dugun geuk ere itzultzaile-lana: gutxitan jasotzen dugu material gordina zuzenean euskaraz.

Aste Santuan Donostiara etorri zen Miren, eta bertan eman nizkion bizpahiru karpeta bete dokumentu, bakoitza hainbat kolorez azpimarratuta eta zakur-letraz zirriborrotutako apuntez inguratuta. Hura

deszifratzea, itzulpen-lana baino gehiago, arkeologia zatekeela ohartuta, transkripzioetatik eta txostenetatik libururako hautatutako aipu zehatzak identifikatzen lagundu nion.

Hurrengo asteetan, dozenaka e-mail trukatu genituen, inoiz bururatuko ez litzazikidakeen galderei bueltaka, aukeraketa terminologiko, gramatikal eta estilistikoak xehe eztabaidatuz. Nola itzuli «Azala» edo «Begiak» izenburuko kapituluak? «Pieb», «Ojos» gisara, ala «La pieb», «Los ojos» gisara? Edo hobe zatekeen kontzeptuok zentzumen bihurtu eta «*El tacto*», «*La vista*» erabiltzea? Sarritan, Garazi ere interpelatzen genuen, bi iritziren artean kontsentsura heltzen ez ginenean arbitro neutrala bilatzeko.

Truke horretan, ez genuen soilik ikasi aukera zehatzenean ados jartzen: bakoitzak testua nola irakurtzen zuen ere agerian geratu zen. Idazlearentzat, itzulpen-prozesuan parte hartzea eta itzultzailearekin harremana izatea *feedback* xehea jasotzeko aukera bat da: bestela agian jaramon handirik egingo ez liekeen hainbat galderarekin zuzenean konfrontatzera behartzen du hark. Gerta liteke uneren batean akatsak identifikatzea ere: hain zuzen ere, Mireni esker ohartu ginen aipu bat okerreko autore bati atxiki niola, berak ez zuelako jatorrizko testuan topatzen. Hartara, itzulpena bakarrik ez, jatorrizko testua ere hobetzen lagundu zigun. «Badakizu esaten dela itzultzaileak irakurle “pribilegiatuak” garela, ezta? Sakon-sakon irakurtzen baitugu itzulgaia...», idatzi zidan maiatzaren 20an. Atzera begiratuz ohartzen naiz idazlearentzat ere pribilegio bat dela bere lanaren itzulpen-prozesuan parte hartu ahal izatea.

Urte hartako ekainaren 1era bitartean, ia egunero trukatu genuen mezuren bat. Hasieran, kortesiazko formulez eta «Kaixo, zer moduz?»-ez janzen genituen. Azkenerako, baina, bulegokidearekiko eguneroko komunikazioaren antz handiagoa hartu zuten meziek, hain ohiko bihurtu baitziren: «Non dago aipu honen jatorrizko bertsioa?», edo «Zein da termino zehatza?» izenburudun e-mailak iristen zitzaizkidan, eta erantzuna, zuzenean, behar zuen aipua izan ohi zen. Uneren batean, gaixotu egin nintzen, eta egun batzuetan ez nuen seinalerik eman. Ez dut uste berak bestelako kortesiarik behar zuenik, eta neuk ere ez; elkarri laguntzea genuen helburu, eta etorriko ziren ospakizunak liburuak kalean zeudenean.

Pare bat urte eskasera, Miren gaixotuko zen, larriki. Orain, 2023an, duela lau urte trukaturako mezuak berrirakurtzen ditudalarik, pentsatzen dut zeinen bizirik eta gaurkotasunezko dirudien haren ahotsak ordenagailuko pantailan, ordutik formarik aldatu ez duen Gmaileko interfazezan. Nagusiki birtualak eta ez oso presentzialak ziren harremanak bukatu direla ulertzea are zailagoa da Interneten garaiotan.

Nik sinesten dizut liburua itzultzeko prozesuan, hainbat zailtasun egokitu zitzaizkion Mireni: hurbileko egile baten testua itzuli beharra; are, egile horrek menperatzen duen hizkuntza batera; tarte oso laburrean; eta, kasu honetan, egile perfektzionista samar baten alboan. Gezurra litzateke esatea bere azken bertsioari ñabardura batzuk baino ez nizkiola gehitu; egia esanda, zorrotz irakurri nuen eta hainbat moldaketa proposatu nituen, liburu horren ahotsa ere funtsean neurea zela sentitzen nuelako.

Bestalde, kazetaritza-generoak berak hainbat arau beregain ditu, itzulpen-prozesuan aintzat hartu behar direnak eta hura zailtzen dutenak. Euskarak berezkoagoa duen aditz-estiloaren eta gaztelanian ohikoagoa den estilo nominalaren arteko talkez harago, kazetaritzan badago terminoen zehaztasunarekiko obsesio bat: gehienetan, istorio oso konplexuak edota irakurle gehientzat ezezaguna den lengoia administratibo-juridikoa emandako materiala ahalik eta forma sinpleenean berreraiki behar izaten dugu. Erredakzioan, testuren bat aldrebesegia zenean, «Izaba Margaritarentzat» edo «Osaba Manolorentzat» idazten genuela gogorarazten genion elkarri. Hortaz, «egitateak» eta antzerako terminoak menutik kanpo zeuden.

Aldi berean, kontatzen dugun horrek aski irakurterraza izan behar du. Liburu batekin, akaso, irakurleak pazientzia gehixeago izan dezake esaldi eta kontzeptu konplexuetan korapilatzeke, baina egunkariaren irakurleak ez du pazientziarik: kafe batek irauten dion denboran kateatu behar dugu haren arreta. Hortaz, sobran daude egitura errepikakorrak, teknizismoak eta testuinguruaren ezagutza handiegia eskatzen duten termi-

noak: kafea bezain sinpleki prestatu behar zaio narrazioa, kafea bezain arin irakurri eta uler dezan. Erritmo biziko kontaketa dira, hitz bakar bat ere ez dutenak sobran.

Ondorioz, lengoia figuratibora jotzea da askotan erabiltzen den baliabide bat. Metaforek kezka ugari kentzen dizkigute, informazio kopuru handiak esplizitatu gabe uztea ahalbidetzen digutelako. Arazoa dator horiek itzulpenean arraro geratzen direnean. *Nik sinesten dizut*, esaterako, honako esaldi honekin hasten zen: «Ehuntze baten istorioa da hau». Mirenek, e-mailez adierazi zigunez, «kristoren buruko minak» izan zituen lehenbiziko esaldiarekin. «*Esta historia es el resultado de un...*», «*Esta es la historia de un...*». Ordu gutxitara bidali zigun beste mezu bat: «Oraintxe bururatu zait: *Esta es una historia tejida hilo a hilo*».

Liburuaren itzulpen-prozesua ere harilkatze bat izan zen, hainbat eskutara lotu genuena aste gutxitan. Argitaratu ostean, itzultzailearen lana ikusezin geratzen da sarritan; nik dakidala, komunikabideek gutxitan jo zuten Mirenengana. Nolanahi ere, isilik egindako lan nekezaren ondorioz utzi digun uztaren parte da *Yo sí te creo*, beste hainbat lanekin batera.

Resumen

La traductora y miembro de EIZIE Miren Iriarte Oyaga nació en Pamplona, en 1978. Tras titularse en periodismo y en traducción, trabajó para varias empresas e instituciones y, a partir de 2006, en el Servicio de Traducción del Ayuntamiento de Pamplona. Tradujo del euskera, castellano e italiano al castellano y al euskera. Miren nos dejó el año pasado, y hemos querido rendirle homenaje por medio de los testimonios de tres personas que tuvieron relación con ella. Amaia Apalauza fue su compañera de viaje en lo personal y lo profesional. Uxue Alberdi tuvo la suerte de conocerla en el proceso de traducción al castellano de su ensayo *Kontrako ezarririk (Reverso)*, al igual que Samara Velte en la elaboración de la versión al castellano de su libro *Nik sinesten dizut (Yo sí te creo)*.

Résumé

La traductrice et membre d'EIZIE Miren Iriarte Oyaga est née à Pampelune en 1978. Après des études de journalisme et de traductologie, Miren a débuté sa carrière de traductrice en 2001. Après avoir travaillé pour diverses entreprises et institutions, à partir de 2006 elle a travaillé pour le Service de traduction de la ville de Pampelune. Elle traduisait du basque, de l'espagnol et de l'italien vers l'espagnol et le basque. Miren nous a quittés l'an dernier, et en souvenir d'elle, nous avons recueilli ici les témoignages de trois personnes qui ont collaboré avec elle. Amaia Apalauza l'a fréquentée dans son travail de traductrice et dans la vie. Uxue Alberdi, elle, l'a côtoyée durant le processus de traduction de son livre *Kontrako ezarririk*, et Samara Velte lors de la traduction de son livre *Nik sinesten dizut*.

Abstract

Translator and EIZIE member Miren Iriarte Oyaga was born in Pamplona in 1978. She began translating in 2001, after completing her studies in journalism and translation. After working for various companies and organizations, she began working for the City of Pamplona Translation Service in 2006. She translated from Basque, Spanish and Italian into Spanish and Basque. Miren passed away last year and in her honor we offer the remembrances of three friends who worked with her. Amaia Apalauza was Miren's friend in translation and in life. Miren and Uxue Alberdi met when Miren was translating *Kontrako ezarririk* into Spanish, and she met Samara Velte when she was translating Samara's book *Nik sinesten dizut*.